

PROMOZIOAREN OINARRIAK

- Promozioren aldia: 2024ko azaroaren 15etik abenduaren 18ra.
- Promozi hau Eusko Labela duten harategi baimendu tradizioaletarako da, doakoa eta 3. puntuari adierazitako baldintzak betetzen dituzten pertsona kontsumitzaileei zuzendua.
- Promozioren mekanika:
 - Promozioren parte hartzeko ezinbestekoa izango da 10 euroko edo hortik gorako erosketa bat edo gehiago egitea Eusko Labela duen edozein produktutan edo produktu horiekin egindako beste edozeinetan (erosketa 20 €-ra iristen bada, 2 kupoi bete ahal izango dira, eta horrela hurrenez hurren).
 - Parte hartzeko kupoiak harategi bakoitzean dagoen postontzian utzi beharko dira, parte-hartzaile bakoitzaren datu pertsonalekin batera (izena eta harremanetarako telefonoa). Kupoi guztiak agortzen badira, beste edozein paper erabili ahal izango da, datu pertsonalak bertan idatzita.
 - Kupoiak bakarrik sartu beharko dira, eta beraz, ez da informazio-etiketarik edo erosketa-tiketarik sartu beharko.
 - Promoziota amaitzean, **harategiko arduradunak txartel bat aterako du bere postontzitik, nork irabazi duen identifikatzeko**. Zozketa 2024ko abenduaren 19an egingo da.
 - Beraz, harategi guztietan irabazle bat egongo da. Bigarren bat ere aterako da postontzi bakoitzetik erreserba moduan, irabazlea astebeteko epean aurkitzea ezinezkoa balitz erabiltzeko. Promozioren ezin izango dute parte hartu handizkariak, harategiko langileak, promozioarekin lotutako merkataritza-prozesuetako langileak edo lotura hori duten ontziratzaileak.
 - Bezeroen informazio pertsonala babesteko, Datuak Babesteko Legeak zehazten duen moduan, oso garrantzitsua da, irabazlea ezagutu eta hark saskia jaso ondoren, harakinak parte hartzeko kupoiak haustea eta, promozio material guztiarekin batera, horiek birziklatze-puntu baimendu batean entregatzea.

- Oinarri guztiak eta sarituen izenak webgune honetan argitaratuko dira: www.euskolabel.hazi.eus
- Promozi honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzen direla esan nahi du.
- Sarien kopurua honakoa izango da
Saski bat harategi bakoitzeko (93 unitate).
- Opariaren edukia:

Solaguen ardo ondua, 75 cl-ko botila 1, Arabako Errioxa J.D.
Basque Wine.

Urdaibai txakolina, 75 cl-ko botila 1, Bizkaiko Txakolina J.D.
Zudugarai txakolina, 75 cl-ko botila 1, Bizkaiko Txakolina J.D.
Marigabon txakolina, 75 cl-ko botila 1, Bizkaiko Txakolina J.D.
Ohiarte sagardoa, 75 cl-ko botila 1, Euskal Sagardoa J.D.
Basatxerri* erreserba handiko urdaiazpiko xerratua. 100 gramoko 2 zorro.
Basatxerri* erreserba handiko solomo xerratua. 100 gramoko 2 zorro.
Basatxerri* erreserba handiko saltxitxoi xerratua. 100 gramoko 2 zorro.
Basatxerri* erreserba handiko lukainka xerratua. 100 gramoko 2 zorro.

Eusko Labela duen oliba-olio birjina estra. Arroniz barietatea, 0,50 cl-ko botila 1.
Urien Idiazabal Gazta, ¼. Idiazabal J.D., zigilu ekologikoduna. 350 gramo inguru.
Eusko Labela duen Añanako gatz-lorearen ezkatat, 125 gramoko ontzi 1.
Aurrez prestatutako babarrunak, Eusko Labela duen Arabako babarrun pintoa, 660 gramoko pote 1.

Eusko Labela duen Arabako babarrun arrozina. Kg bateko zaku 1.
Eusko Labela duten Arabako Pedrosillano garbantzuak. Kg bateko zaku 1.
Euskal Baserri baba txikiak. Kg bateko zaku 1.
Garai kuia- eta sagar-marmelada ekologikoa, 250 gramo.
Eusko Labela duten Zubelzu Ibarako Piperrak. 300 gramoko ontzi 1.
Arabako trufa duen Basatxerri* pate, Eusko Labelduna. 130 gramoko ontzi 1.
Ezpeletako piperra duen Basatxerri* pate. 130 gramoko ontzi 1.
Eusko Labela duen Arroyabe hegazuarekin egindako hegazu-kontserba olio ekologikoan. 185 gramoko ontzi 1.
Eusko Labela duen Olasagasti hegazuarekin egindako hegazu-trontzoen kontserba oliba-oliotan. 315 gramoko ontzi 1.
Eusko Labela duen Arroyabe hegazuarekin eta Ezpeletako piperrarekin egindako hegazu-kontserba. 227 gramoko ontzi 1.
Eusko Labela duen Mila Lora ezti. ½ kg-ko ontzi 1.
Tolosako teilak eta zigarrotoak, karameluz estalitako almendrekin. Glutenik gabe, 150 gramoko ontzi 1.
Txokolate beltza, Dorletako gatzarekin. 110 gramoko tableta 1.
Eusko Label mantal 1.
Saski bat. Neurriak: 40 x 35 x 25/31 cm

- Saritutako kupoiak ateratzen duen harakinak irabazlearen izena idatzi beharko du promozioaren kartelean.** Promoziota amaitu ondoren, Hazi kontratatutako agentziak harategi guztietara deituko du **irabazlearen (nagusia edo erreserbakoa) datuak jakiteko. Honako datu hauek ezinbestekoak izango dira: izen-abizenak, helbidea (posta-kodea barne), telefonoa eta/edo helbide elektronikoa**. Irabazleari telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaio saria lortu duela. Gainera, Haziaren webgunean argitaratuko da.
- Saritutako saria irabazi duen harategian ikusgai egon den saskia jasoko du. Harekin harremanetan jartzea ezinezkoa gertatzen bada, erreserban dagoenari adieraziko zaio saria irabazi duela.
- Irabazleak jakinarazten badigu ez duela saskia jaso, harategi horretako arduradunak konpondu beharko du sortutako gertakaria.

*Eusko Labela duen baserriko txerriarekin egina.